

OHI KANPOKO OSOKO BILKURA 07/12

UDALAK 2012ko EKAINAREN 21EAN EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegi jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Juan Antonio Cuesta Solé jn.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko ekainaren 21ean ohi kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTUHARTZAILEORDEA:

Arantxa Apodaka Fernandez and.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2011-07-26 ETA 2012-05-29. - 2011ko uztailaren 26an eta 2012ko maiatzaren 29an egindako bileren aktak onartu dira. EAjko zinegotziak uztailaren 26koan abstenitu egin dira, nahastuta irakurri gabe geratu baitzaie.

2.- 2012KO MAIATZAREN 25ETIK 2012KO EKAINAREN 17RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. – 2012ko maiatzaren 25etik 2012ko ekainaren 17ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.

* Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- 2012-2015 EPEALDIKO PLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN ONARPEN PROPOSAMENA. – Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuatarako Batzorde bereziak 2012ko ekainaren 19an emandako irizpena. Bozketa egin da eta hona hemen emaitza:

* Aldeko botoak: 9 (BILDU).

* Kontrako botoak: 2 (EAJ-PNV).

* Absatentzioak: 2 (H1!).

Beraz, emandako botoak ikusita, erabaki hau hartu da:

Entitate honek 328.000 euroko mailegu bat hartu behar du 2011. urteari dagokion UFFFeko likidazioaren saldo negatiboaren zati bat itzultzeko, Diputatuen Kontseiluak 2012ko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren arabera.

Eragiketa hori egin aurretik 2012-2015 eperako ekonomia eta finantza plangintza bat onartu beharra dago.

Aztertu da Ogasun eta Ondare – Kontuatarako Batzordeak 2012ko ekainaren 19an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Onartzea honako plan ekonomiko eta finantzarioa, hiru atal hauek dituena:

- 1.- Kontu-hartzailearen txostena
- 2.- Alkatearen memoria
- 3.- 2012-2015 epealdiko aurrekontuen aurreikuspenak

4.- MAILEGUA KONTRATATZEKO PROIEKTUAREN ONARPEN PROPOSAMENA. - Aztertu da Ogasun eta Ondare – Kontuatarako Batzordeak 2012ko ekainaren 19an emandako irizpena.

Alkate jaunak esan du Foru Aldundiak udal guztiei adierazi diela berak bideratuko zituela mailegu hori kontratatzeke (328.000 euro) negoziaketak, baldintza hobeak lortu ahal izateko.

Eta horregatik ez dakigula zenbatekoa den interes tipoa eta zein entitaterekin kontratatuko den mailegua, baina datu horiek jakin bezain laster Ogasun Batzorde baterako deia egingo duela, horri guztuari buruzko informazioa emateko.

Amonarraiz jaunak (EAJ) esan du ongi iruditzen zaiola ahalik eta baldintzarik onenak lortzen saiatzea, baina zinegotzi lanetan daraman 9 urteetan lehenengo aldia dela definitu gabe dagoen proposamen bat aurkezten dena, are gehiago kontu-hartzaileak egindako txostenean portzentajea %4an finkatua dagoelarik.

Esan du beraiek kontrako botoa emango dutela, gauzak horrela egitea ez zaielako egokia iruditzen.

Miner jaunak (Bildu) esan du kontu-hartzailearen txostenean jasota datorren portzentajea gutxi gorabeherakoa dela eta arrazoi operatiboen ondorioz aurkeztu behar izan dela proposamena horrela. Alkateak esandakoa berretsi du, hau da, Ogasun Batzordean argituko dela berehala.

Amonarraiz jaunak (EAJ) esan du berriz ere beraiek gauza zehatzak bozkatu nahi dituztela.

Azkenik alkate-lehendakariak irizpenaren inguruko botazioa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 9 (BILDU).

* Kontrako botoak: 2 (EAJ-PNV).

* Absententzioak: 2 (H1!).

Beraz, emandako botoak ikusita, erabaki hau hartu da:

Erakunde hau 328.000 euroko kreditu eragiketa bat kontratatu beharrean dago, 2011ko UFFEn likidazioaren saldo negatiboaren itzulketaren zati bat finantzatu ahal izateko.

Kontu-hartzailearen txosten ekonomiko finantzarioa aztertuta.

Aztertu da Ogasun eta Ondare – Kontuetarako Batzordeak 2012ko ekainaren 19an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- Ondoko baldintza hauek dituen mailegu kontratu bat onartzea:

- Zenbatekoa: 328.000 euro
- Amortizazio epea guztira: 2 urte eta 3 hilabete (gabealdiko 6 hilabete barne)
- Amortizazioa: 8 epetan. Lehenengoa: 2013ko otsaila. Azkena: 2014ko azaroa
- Amortizazio aurreratua: bai
- Bermea: Comfort letter
- Ordaintze data: 2012ko abuztuaren 25a
- Interes tasa: aldakorra. Hiruhileko Euribor + zehaztu gabeko diferentziala
- Komisioak: ez

Finantza entitatea eta euriborren gainean aplikatu beharreko diferentziala Gipuzkoako Foru Aldundiak hasitako negoziazio prozesua amaitzen denean zehaztuko dira.

2.- Erabaki hau jendaurrean ikusgai jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan, 15 eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena eskatzea, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza, Gipuzkoako Udal Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauak 52. artikuluan jasotakoaren arabera.

4.- Alkate jaunari ahalmena ematea kontratua eta erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

5.- "AIZKIBEL ENPRESAK SANTA BARBARAN DITUEN LURREI BURUZKO HIRIGINTZA-HITZARMENA"REN OSAGARRIAREN ONARPENA. – Egin beharreko legezko izapidetzea egin ondoren, 2010eko otsailaren 15ean Hernaniko Udalak eta Aizkibel Sozietate Anonimoak hirigintza hitzarmen bat sinatu zuten Aizkibelek Santa Barbaran zituen lurrei buruz.

Hernaniko Udalak, hitzarmenaren bidez hartuak zituen eginbeharrak betez, Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Testu Bategina onartu zuen 2011ko apirilaren 11n, eta testu bategin horretan jaso zen artean Aizkibel SLrenak ziren lurretarako bi aldeek hitzarmen horren bidez itundutako antolamendu berria.

Aizkibel SAK, bestalde, hitzarmenean hartutako hainbat konpromiso betez, 2012ko otsailaren 2an emandako eskritura publiko bidez, Hernaniko Udalari doan laga dizkio "Santa Barbara harrobia eta Mendia Babesteko, Leheneratzeko eta Paisaia Berreskuratzeko Plan Berezian" aurreikusten direnak gauzatzeko beharrezkoak diren lurrak.

Gainerako lurri dagokienez, AIZKIBEL SL merkantilak URKILLA SLri eskualdatu dio Santa Barbarako SB.03 area osatzen duten finken jabetza soila, 2011ko apirilaren 28an Hernaniko notario Francisco-Ignacio Romera Pedrosa jaunaren aurrean baimendutako eskritura publiko bidez.

Planeamenduaren exekuzio prozesua hasia delarik URKILLA SLk ikusi du indarrean dauden Arau Subsidiarioen SB.03 arearen antolamendu xehakatuan hainbat doikuntza txiki egin beharra dagoela eta, horretarako, dagokion Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren idazketa-lanei ekiteko lanak hasi ditu.

Lan horien ondorioz eta egin beharrezkoak diren lurzoruen azterlan geoteknikoen ondorioz ikusi da 3. erdisotoko zati handi baten exekuzioa ezabatu beharra dagoela. Horrek dakar 2. erdisotoko errotaio aparkalekua eta babes ofizialeko 19 garaje-plazak eskuratu behar izatea. Bestalde, arrazoi teknikoak tarteko, erdisotoko solairuak, zeinen gainean eraikiko baitira etxebizitzak, unitate bakar gisa eraikitzea komeni dela ikusi da, sestra azpian eta gainean bi lursail independente gisa landu beharrean.

Hori hala egin behar izateak antolamenduan lursail eraikigarri bakar bat osatu beharra dakar, atribuzio pribatiboko 4 finka bereziz osatutako Higiezin-Multzo gisa eratu. Eta hori guztia ahalbidetzeko, aldi berean, aurreko Hirigintza Hitzarmena osatu eta zehaztu beharra dago, antolamenduaren ondoriozko arkitektura juridiko berriari egokitzeko; funtsean aurrekoaren ondoriozko konpromisoak eta betebeharrak mantentzen badira ere, egokitu egin behar badira ere.

Horri dagokionez egindako txosten juridikoa ikusita eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c. eta 47.2.ii artikuluek xedatzen dutena kontuan hartuta,

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko ekainaren 11n emandako irizpena.

Zera erabaki da, H11eko bi Zinegotzien abstentzioarekin.

Lehenengo.- Aizkibelek Santa Barbaran dituen lurri buruzko hirigintza-hitzarmena"ren osagarri gisa URKILLA SL erakundearekin izenpetzekoa den hitzarmen osagarriari hasierako onarpena ematea. Hona hemen testu osoa:

"AIZKIBEL ERAKUNDEAK SANTA BARBARAN DITUEN LURREI BURUZKO HIRIGINTZA-HITZARMENA"REN OSAGARRIA

Hernanin, 2012ko maiatzaren

BILDU DIRA

BATETIK: LUIS INTXAUSPE AROZAMENA jauna, Hernaniko Udaleko alkate-lehendakaria.

BESTETIK: jauna/andrea, adinez nagusia, helbidean bizi dena eta N.A.N. zenbakia duena.

PARTE-HARTZAILEAK

LUIS INTXAUSPE AROZAMENA HERNANIKO UDALAREN izenean eta haren ordezkari gisa, eguneko Udal Batzarrak erabakita ekitaldi honetarako eskumena jaso ondoren.

Hitzarmen honekin batera erabaki horren ziurtagiria doa, 1. Eranskin gisa.

..... jaunak URKILLA SOCIEDAD LIMITADA merkataritza-enpresaren izenean eta ordezkartzan esku hartzen du, notario jaunaren aurrean egindako eskrituran eraturako erakundea izanik hura, eta Merkataritza Erregistroan Tomoan inskribatua. Ekintza honetarako behar den ahalmenaren jabe dela dihardu, notario jaunaren aurrean egindako ahalordetze-eskrituran ageri den moduan.

Hitzarmen honekin batera, eraketa-eskrituren eta aipaturako ahaldundetze-eskrituren kopia da, 2. Eranskin gisa.

AURREKARIAK

Egin beharreko legezko izapidetzea egin ondoren, 2010eko otsailaren 15ean Hernaniko Udalak eta Aizkibel Sozietate Anonimoak hirigintza hitzarmen bat sinatu zuten Aizkibelek Santa Barbaran zituen lurri buruz.

Hernaniko Udalak, hitzarmenaren bidez hartuak zituen eginbeharrak betetz, Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Testu Bategina onartu zuen 2011ko apirilaren 11n, eta testu bategin horretan jaso zen artean Aizkibel SArenak ziren lurretarako bi aldeek hitzarmen horren bidez itundutako antolamendu berria.

Aizkibel SAK, bestalde, hitzarmenean hartutako hainbat konpromiso betetz, 2012ko otsailaren 2an emandako eskritura publiko bidez, Hernaniko Udalararen doan laga dizkio "Santa Barbara harrobia eta Mendia Babesteko, Leheneratzeko eta Paisaia Berreskuratze Plan Bereziaren" aurreikusten diren gauzatzeko beharrezkoak diren lurak.

Gainerako lurri dagokienez, AIZKIBEL SA merkataritza-enpresak URKILLA SLri eskualdatu dio Santa Barbarako SB.03 area osatzen duten finken jabetza soila, 2011ko apirilaren 28an Hernaniko notario Francisco-Ignacio Romera Pedrosa jaunaren aurrean baimendutako eskritura publiko bidez.

Planeamenduaren exekuzio prozesua hasia delarik URKILLA SLk ikusi du indarrean dauden Arau Subsidiarioen SB.03 arearen antolamendu xehakatu hainbat doikuntza txiki egin beharra dagoela eta, horretarako, dagokion Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren idazketa-lanei ekiteko lanak hasi ditu.

Lan horien ondorioz eta egin beharrekoak diren lurzoruen azterlan geoteknikoen ondorioz ikusi da 3. erdisotoko zati handi baten exekuzioa ezabatu beharra dagoela. Horrek dakar 2. erdisotoko errotaioa aparkalekua eta babes ofizialeko 19 garaje-plazak eskuratu behar izatea; bestalde, arrazoi teknikoak tarteko, erdisotoko solairuak, zeinen gainean eraikiko baitira etxebizitzak, unitate bakar gisa eraikitzea komeni dela ikusi da, sestra azpian eta gainean bi lursail independente gisa landu beharrean.

Hori hala egin behar izateak antolamenduan lursail eraikigarri bakar bat osatu beharra dakar, atribuzio pribatiboko 4 finka bereziz osatutako Higiezin-Multzo gisa eratu. "0" finka plataforma moduan: ez da uniforme eta erdisotoak hartzen ditu. Horren gainean datoz A (etxebizitza aske eta tasatua), B (etxebizitza aske eta tasatua) eta C (babes ofizialeko etxebizitza) bizitzeko finkak. "0" finka Udalari eta sustatzaileari esleituko zaie jabetza indibiso gisa eta, aitzitik, C finka Udalari bakarrik esleituko zaio. Sustatzaile pribatuari A eta B finkak esleituko zaizkio.

Hori guztia ahalbidetzeko aurreko Hirigintza Hitzarmena osatu eta zehaztu beharra dago, antolamenduari ondoriozko arkitektura juridiko berriari egokitzeko; funtsean aurrekoaren ondoriozko konpromisoak eta betebeharrak mantentzen badira ere, egokitu egin behar dira.

Horrenbestez, batetik, Hernaniko Udalak, epeka, hasieran izenpetutako hitzarmenean aipatutako udal helburuak lor ditzan, eta bestetik, URKILLA SA erakundeak ekonomia-jardueraren oreka mantentzen, alde guztiek beharrezko segurtasun juridikoa lortu ondoren, bertaratu direnek akordioa egin dute, eta horixe da, hain zuzen ere, **2010EKO OTSAILAREN 15EAN IZENPETUTAKO HIRIGINTZA-HITZARMENAREN HITZARMEN OSAGARRI** honen xedea. honako hauek dira hitzarmen horren baldintzak:

BALDINTZAK

LEHENA.-

Parte hartzaileek, daukaten ordezkariaren indarrez, 2010eko otsailaren 15ean izenpetutako Hirigintza Hitzarmena berresten dute, haren bidez hartutako konpromiso eta betebeharrak guztiak bere horretan gelditzen direlarik eta Hitzarmen honen baldintzetan jasotako zehaztapenak gaineratzen zaizkiola.

BIGARRENA.-

Bigarren baldintza zuzentzen da, hartutako hainbat konpromiso —hala nola erdisotoko -3 solairuan 400 m²-ko ekipamendurako lokala entregatzea, garajetarako 1.950 m² entregatzea (1.300 m² errotaziokoak eta 650 m² Babes Ofizialeko Etxeekin lotutakoak) eta babes ofizialeko 19 etxebizitzaren eraikigarritasuna esleitzea— HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAN jasotako partela bakarreko eta higiezin-multzoko baldintzei egokitzeko. Gainera, erdisotoko -3 solairuan trasteroak (50 m²) eta C finkarako (babes ofizialeko etxebizitzak) sarbidea bermatuko duen ataria (50 m²) egiteko lanak aurreikusten dira.

HIRUGARRENA.-

Ondorioz, 2010eko otsailaren 15eko Bigarren Baldintzaren 3. atala honela idatzita gera dadila adostu dute bi aldeek:

3.- Aurreikusten den irabaziko eraikigarritasuna, sestra gainean nahiz azpian, hurrengo irizpide hauei jarraituta esleituko da:

* Honela egingo da banaketa: alde batetik, eremu lursailen jabe guztien artean eta, bestetik, Hernaniko Udala, ondoren ezartzen diren irizpideen arabera.

* Eremuaren jabetza pribatuari dagokion eraikigarritasuna honako hauek aplikatuz eratorriko da: onuren eta kargen banaketa-proiektua formulatzean indarrean den hirigintza-legeriak horren inguruan xedatzen dituen aurreikuspenak. Horrenbestez, URKILLA SL erakundeari

esleituko zaizkio A eta B finkak eta "0" finkaren kuota zatietan bat, dena Higiezin-Multzotik, eta honako eraikuntza-eskubide hauek patrimonializatzeko eskubidea izango du:

A finka (%100)

Etxebizitza-erabilera: 1.550 m²/t (1.080 m²/t salmenta askekoak eta 470 m²/t erregimen tasatukoak)

Etxebizitzen erregimena: 17 etxebizitza (12 salmenta askekoak eta 5 erregimen tasatukoak)

B finka (%100)

Etxebizitza-erabilera: 1.350 m²/t (900 m²/t salmenta askekoak eta 450 m²/t erregimen tasatukoak)

Etxebizitzen erregimena: 15 etxebizitza (10 salmenta askekoak eta 5 erregimen tasatukoak)

"0" finka

%45en kuota zatietan, honetarako eskubidea ematen duena: 2.000 m²/t

Aparkaleku eta trastelekuetarako erabilera (salmenta askeko erregimena) 1.550 m²/t

Aparkaleku eta trastelekuetarako erabilera (erregimen tasatua) 450 m²/t

- * Hirigintza-ekintzagaratik sortutako gainbalioetan komunitateak partaidetza izan behar duenez gero, Hernaniko Udalarir irabaziko eraikigarritasuna esleituko zaio, hain zuzen ere, C finkaren %100 eta "0" finkaren kuota zatietan bat, dena Higiezin-Multzokoa, guztiz urbanizatua eta honako eraikuntza-eskubide hauek dituen:

C finka (%100)

Etxebizitza-erabilera: 1.700 m²/t

Etxebizitzen erregimena: 19 etxebizitza babes ofizialeko

Trastetegi erabilera (Babes ofizialeko etxebizitzen eranskinak) 100 m²/t

"0" finka

%55en kuota zatietan, honetarako eskubidea ematen duena: 2.450 m²/t

Erabilera osagarria (ataria): 50 m²/t

Ekipamendu publikoko erabilera: 400 m²/t

Aparkaleku publikoko erabilera (errotazioa): 1.300 m²/t

Babes Ofizialeko etxebizitzen aparkaleku erabilera: 650 m²/t

Trastetegi erabilera (Babes ofizialeko etxebizitzen eranskinak) 50 m²/t

- * Gainera, hirigintza-ekintzagaratik sortutako gainbalioetan komunitateak partaidetza izan behar duenez gero, URKILLA SLk honela jardungo du:

- Bere kontura ordaindu beharko du erdisotoko -2 solairuko 650 m²/t garaje babes ofizialekoen eta 1.300 m²/t garaje publikoren eraikuntza, udalak "0" finkan dituen eskubideen zati batekin bat baitator.

Obra hori egina eta egokitua egon beharko du, hau da, erabat instalatua eta irekitzeko lizentzia eta behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratuak dituela. Nolanahi ere, udalbatzak bere kontura ordainduko du garajetarako 1.950 m²/t-en exekuzioari dagokion Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, bai eta obra eta jarduera lizentzien tasa eta eraikuntzaren kostuari dagokion BEZ ere.

- Lau urteko epea izango du aparkalekua emateko, eremu horri dagokion Hirigintza Jarduketarako Programa behin betiko onartzen denetik kontaktzen hasita. Emate honen formalizazio publikoaren egintzan Hernaniko Udalak bakar-bakarrik egindako obrari

dagokion BEZ ordaindu beharko du.

Gerta daitezkeen kalte-ordainen aurrean Udaltzarak eska ditzakeen erantzukizunak gorabehera, 30 €/eguneko zigorra ordaindu beharko du erakundeak Udaltzari aparkalekua ematen ez dion egun bakoitzeko.

- * 1.950 m² horietan (650+1.300) eraikiko den errotazioko aparkalekua eman egingo dela bermatzeko, Birpartzelazio Proiektuan berme juridiko batzuk gaineratu dira. Horrez gain, aurreko lehen atalean xedatzen dena betetzen dela bermatzeko, eremuaren sustatzaileak aparkalekuaren eraikitze-kostuaren zenbateko edo balioaren berme bat eman behar dio Hernaniko Udalari Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartu aurretik; berme hori azalera osoari dagokion kontratuko exekuzio-aurrekontuaren arabera izango da, BEZ kanpo. Berme horren bitartez, Hernaniko Udalari errotazioko aparkalekuaren lokala eta babes ofizialeko 19 garaje-plazak emango zaizkiola bermatuko da, Hitzarmen honetan jasotzen diren baldintza eta epeak kontuan hartuta.

Horrenbestez, udal lizentzia behar duen Proiektu Teknikoan partida hau gehituko da, eta hari dagozkion neurketak bereizirik gehituko zaizkio.

- * Era berean URKILLA SLk ekipamendu sozialetarako izango den 400 m²-ko lokal soziala, 50 m²-ko ataria eta 50 m²-ko trastetegiak eraiki beharko ditu erdisotoko -3 solairuan, udalak "0" finkan dituen eskubideen zati batekin bat datozenak, eta horren ordainetan Udalaren eskutik EHUN ETA BERROGEI MILA EURO (140.000 €) jasoko ditu, gehi BEZ, Udalaren konturakoa izango delarik Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga eta obra lizentziaren tasa.

Lokal soziala fatxada bukatua duela emango da, itxia, pareta zarpiatua eta margotua edo blokea duela eta hartuneetarako puntuak eta ibilgailuak sartzeko atea dauzkala. Ataria egituran egina emango da, fatxada itxia duela, pareta zarpiatu eta margotua edo blokea duela, eta behin-behingo atearekin.

Eraikuntzaren prezioa gehi BEZ zergari dagokiona Udalak ordainduko du, aipatutako lokalaren, atariaren eta trastetegiaren obrak bukatu eta 30 eguneko epean.

LAUGARRENA.-

Bi aldeek fiskalitatearen ikuspuntutik une eta modu egokienean gauzatuko dute "0" finkaren elementu pribatiboen esleipena eta jabetza indibisoaren etetea, eta, bereziki, babes ofizialeko etxebizitzaren garajeen eskualdaketaren tratamendu fiskala onuradun izango direnentzako mesedegarrienak izateko moduan (BEZ murriztua).

URKILLA SLk eta Hernaniko Udalak edo haren eskubidea jaso duenak ordainduko ditu Komunitatearen etete prozesuaren gastuak eta zergak (AJD, Notaritzak, BEZ edo Transmisioak, Erregistroa), "0" finkako kuotetan dauzkaten proportzioen arabera, "0" finkaren obra berriaren elementu pribatiboen esleitu arte. Elementu pribatibo bakoitzaren Komunitateko gastuen partaidetza Jabetza Horizontalaren Banaketa eskrituran finkatzen den kuotan ezartzen dena izango da, lokal pribatibo bakoitzak benetan parte hartzen duen zerbitzuen arabera.

Bigarrena.- Hirigintza hitzarmenaren testua jendaurrean ikusgai jartzea, hogeitun egunez, udaletxeko iragarki taulan eta udalaren egoitza elektronikoan txertatuz eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Epe horretan nahi duen orok bidezko jotzen dituen alegazio, iradokizun edo ohar egiteko aukera izango du.

Hirugarrena.- Hitzarmena behin betiko onartuko da, baldin eta hura jendaurrean jarri den epean idatzirik edo alegaziorik egin ez bada.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea udalaren izenean aipatutako hitzarmen hori formalizatzeko eta ebazpen hau gauzatzeko beharrezko diren dokumentu guztiak sina ditzan.

6.- URUMEA IBAIAREN ARROAN, KARABEL AUZOAN, ESKU-HARTZEKO LANKIDETZA HITZARMENA. - 2008. urtean Uraren Euskal Agentziak (URA) "Urumea ibaiaren antolamenduaren azterlan hidraulikoa (bokaletik Hernaniko Altzuetara artekoa)" onartu zuen. Azterlanaren helburua zen ibai bazterrak antolatzea, ikuspuntu hidraulikotik, ingurumenaren ikuspuntutik eta hirigintzaren ikuspuntutik, Urumea ibaiaren ibilgu osoan, Hernaniko udalerritik hasi eta itsasoratzen den lekura arte.

Azterlan horrek, Karabel auzoari dagokionez, orain dagoen zubia eraistea eta berri bat egitea jasotzen du eta, horretarako, beharrezkoa da oraingo zubiaren ondoan dauden hiru eraikinak botatzea. Era berean, lezoi bat egitea ere jasotzen du, Karabel auzoaren iparraldean barrena doan bidearen luzera guztian, bide hori babesteko, hain zuzen.

Bestalde, Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak beste azterlan osagarri bat egin zuen "Urumea ibaiaren azterlan hidraulikoa, Hernaniko herrigunean, Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikusketaren testu bateginean sartze aldera" izenekoa.

Planeamendu orokorreko dokumentu horrek, gaur egun indarrean dagoena, 2011ko apirilaren 11n onartu baitzen, inguru horretarako hainbat esku-hartze zehaztu eta antolatzen ditu, hala nola Akarregin biribilgune berri bat egitea (bide sistema orokorra); hiri lurzoru finkatu gabeko area bat mugatzen du (UE)PK.02 Karabel, bertako irizpide eta helburu gisa, besteak beste, uholdeen aurka babesteko obrak egitea ezartzen delarik, lehen aipatutako "Urumea ibaiaren antolamenduaren azterlan hidraulikoa (bokaletik Hernaniko Altzuetara artekoa) izeneko azterlanean definituta datozenak, eta bide sareri lotutako hainbat lan zehazten ditu, Mugikortasun Planaren aurreikuspenekin bat etorriz.

Gauzak horrela, 2011ko maiatzaren 10ean Hernaniko Udalak eta Uraren Euskal Agentziak (URAK) Protokolo bat izenpetu zuten Urumea ibaiaren arroan esku-hartzeko (Hernaniko Karabel auzoan). Protokolo horren bidez, oro har, Uraren Euskal Agentziak (URAK) egungo Karabelgo zubia eraisteko eta zubi berria eta lezoia eraikitze lanen kostuaren %75 ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Bestalde, Udalak hitz eman zuen bermatuko zuela Arau Subsidiarioen Testu Bategineko (UM)PK.02 Karabel areak aipatutako jarduketak egin ahal izateko beharrezkoak diren lurzoruak Uraren Euskal Agentziaren esku jarriko zituela, eta jarduketa horien %25 finantzatuko zuela.

Ondotik, protokoloaren gehigarri bat izenpetu zuten bi erakundeok. Horren bidez URAK udalari eman zion egitasmo tekniko horiek prestatzeko ardura, aipatutako finantzaketa irizpideak mantentzearen kalterik gabe, eta egitasmoaren kostua "konturako" gastu gisa hartuta.

Arau Subsidiarioen Testu Bategina eta aipatutako protokoloa onartuak daudelarik, (UM)PK.02 eremuaren sustatzaileak hasi ditu area horren Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren lanak eta urbanizazio egitasmoari dagozkionak. Aldi berean Ikaur SL enpresa Karabelgo egungo zubia eraisteko eta zubi berria eta lezoia eraikitze egitasmoa prestatzen ari da.

Lan horiek egitearen ondorioz ikusi da derrigorrezkoa dela lankidetzan aritzea bai exekuzioan eta baita programaketan ere, ez bakarrik PK.02 Karabel inguruko hirigintza jarduketan eta zubi berriaren eta lezoiaren eraikuntzan, baizik eta baita ere bestelako udal jarduketetan ere, hala nola Akarregiko biribilgunea egiteko lanetan eta lezoiaren gainean eraikiko den bidea egitekoetan (PK.02 Karabel areatik kanpoko zatia).

Era berean ikusi da uholdeak saiheste aldera aurreikusitako jarduketan artean ez dagoela sartua garrantzi (eta kostu) handiko kontu bat, alegia, Karabel auzoa drainatzeko egin beharreko lanak,

gainerako beste guztiak (hirigintza jarduketak eta uholdeen gaiarekin lotuta, lezoia) egin eta gero egin beharko litzatekeena.

Horrengatik guztiarengatik, eta kontuan hartuta jarduketan exekuzioan eta programaketan koordinazioa ezinbestekoak konpromiso bat eskatzen duela, protokolo (asmo adierazpen) bat baino haragokoa, hitzarmenera iritsi arte, zeinen bidez aldeek aurrekontu partidak konprometitzen baitituzte hainbat urtetarako, era horretan lanen exekuzioa bermatzen delarik,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 10 eta 55 artikulua xedatzen dutena ikusita eta Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 30/1992 Legearen 3 eta 6 artikuluan araututakoa ikusita, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e artikulua xedapenak kontuan hartuta,

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko ekainaren 11n emandako irizpena.

Zera erabaki da, H1!eko bi Zinegotzien abstentzioarekin.

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziak (URAK) proposatutako hitzarmena onartzea. (Erabaki honekin batera doa eranskin gisa).

Bigarrena.- Behean aipatzen diren konpromiso kreditu hauek onartzea, biak ere 2014ri begira:

- 454.085,01 € Karabelgo iparraldean barrena egitekoa den lezoirako eta haren gainean gauzatu beharreko biderako. Lezoia egiteko aurreikusitako kopurua 182.153,85 €-koa da eta Uraren Euskal Agentziaren kontura finantzatu da. Bidea eta dagokion urbanizazioa egiteko aurreikusitako kopurua 271.931,16 €-koa da eta Hernaniko Udalak finantzatu du.
- 459.976,07 € (BEZ barne) Akarregiko biribilgune berria egiteko; horietatik 164.177,45 euro 1.0100.601.16.432.00.2010 "Akarregi poligonoaren urbanizazioa" partidaren kontura finantzatu da eta, gainerakoa, hau da, 295.798,62 €, 2014. urterako konpromiso kreditu baten bidez.

Hirugarrena.- Alkate-lehendakariari erabaki hau gauzatu ahal izateko izenpetu beharreko agiri guztiak izenpetzeko ahalmena ematea eta URAK hitzemandako kopuruak lantzen ari den egitasmo teknikoaren ondorioz eguneratzeko eta egokitzeko ere bai.

ERANSKINA.- PROPOSATUTAKO HITZARMENAREN TESTUA.

LANKIDETZA HITZARMENA HERNANIKO UDALAREN ETA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ARTEKOA, URUMEA IBAIAREN ARROAN ESKU-HARTZEKO (HERNANIKO KARABEL AUZOAN)

Hernanin, 2012ko maiatzaren n.

ELKARTU DIRA:

Alde batetik. Luis Intxauspe Arozamena, **HERNANIKO UDALEKO** alkate-lehendakaria, zeinak udalaren izenean eta haren ordezkari gisa parte hartu baitu, osoko bilkurakn hartutako erabaki bidez egintza honetarako behar bezala ahalmendurik.

Bestetik. Iñaki Urrizalqui Oroz, **URAREN EUSKAL AGENTZIAREN (URA)** zuzendari nagusia, zeinak URAREN izenean eta haren ordezkari gisa pate hartu baitu, URAREN estatutuen 7.2.g artikulua ematen dizkion aginpideen indarrez.

Bi aldeek **LANKIDETZA HITZARMEN** hau formalizatzeko legezko eta jarduteko gaitasun osoa aitortu diote elkarri.

AZALTZEN DUTE:

Lehena.- Euskadiko Autonomia Estatuaren 10. artikularen 11. eta 33. atalen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak honako gai hauei buruzko eskumen eskusiboak ditu: ur erabilerak, ur horiek osoki Euskal Autonomia Erkidegoan barrena badoaz, eta estatuaren interes orokorraren legezko kalifikaziorik ez duten herri-lanak, edota beste autonomia elkarteak ukitzen ez dituztenak.

Bigarrena.- Ekainaren 23ko Uraren Legearen bidez (1/2006 Legea) Uraren Euskal Agentzia (URA) eratu zen (zuzenbide pribatuko erakundea, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari atxikia), Euskadin uraren arloko politika eramateko helburuarekin.

Hirugarrena.- 2008. urtean Uraren Euskal Agentziak *“Urumea ibaiaren antolamenduaren azterlan hidraulikoa (bokaletik Hernaniko Altzuetara artekoa)”* onartu zuen. Azterlanaren helburua zen ibai bazterrak antolatzea, ikuspuntu hidraulikotik, ingurumenaren ikuspuntutik eta hirigintzaren ikuspuntutik, Urumea ibaiaren ibilgu osoan, Hernaniko udalerritik hasi eta itsasoratzen den lekura arte, uholde arriskua gutxitzeko edo arintzeko helburuarekin.

Azterlan horrek, Karabel auzoari dagokionez, orain dagoen zubia eraistea eta berri bat egitea jasotzen du eta, horretarako, beharrezkoa da oraingo zubiaren ondoan dauden hiru eraikinak botatzea. Era berean, lezoi bat egitea ere jasotzen du, Karabel auzoaren iparraldean barrena doan bidearen luzera guztian, bide hori babesteko, hain zuzen.

Laugarrena.- Egin beharreko legezko izapidetzea egin ondoren, Hernaniko Osoko Bilkurak 2011ko apirilaren 11n egindako bileran udal planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zen. Dokumentu horrek inguru horretan egin beharreko hainbat esku-hartze zehaztu eta antolatzen ditu, honako hauek, besteak beste:

- a) Alde batetik, Akarregiko biribilgune berriaren urbanizazio lanen bukaera antolatzen du (arau partikularrean Karabel izenez datorrena), bide sistema orokor berri batez osatua, (UB)AK.04 eta (UE)ZE.01 areatan sartua, zeinaren exekuzioa Karabelgo zubi berriaren eraikuntzarekin loturik baitago.

Aipatutako hirigintza dokumentuak arearen urbanizazio publikoa hobetzeko lanak Hernaniko Udaleri berari egozten dizkio, horien artean Bide Sistema Orokorra bukatzekoak sartzen direlarik (Akarregiko biribilgunea).

Horren harian, eskuratuak daude biribilgune hori egin ahal izateko bi area horietan okupatu beharreko lurzorua: (UB)AK.04 areari dagozkionak haren planeamenduaren exekuzio prozesuan, eta (UE)ZE.01 arean sartuta daudenak, berriz, LOIRE SAFE SA merkataritza enpresarenak baitira, 2010eko martxoaren 5ean izenpetutako hitzarmen bidez.

Lanak burutzeko udalak biribilgune berria eraikitzeko eraikuntza egitasmo tekniko bat dauka. Nolanahi ere, egitasmo hori zubi berriaren eraikuntzaren egitasmo teknikoari egokitu behar zaio.

b) Hiri lurzoru finkatu gabeko area bat mugatzen du (UE)PK.02 Karabel, bertako irizpide eta helburu gisa, besteak beste, uholdeen aurka babesteko obrak egin beharra ezartzen delarik, "Urumea ibaiaren antolamenduaren azterlan hidraulikoa (bokaletik Hernaniko Altzuetara artekoa) izeneko azterlanean definituta datozenak (Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak 2008ko urtarrilaren 29an onartutako azterlana). Lan horiek honetan zehazten dira:

- * Karabelgo egungo zubia eraistea eta, haren lekuan, zutabeen artean 70 metroko tartea duen bat eraikitzea (tarteko zutaberik gabea).
- * Karabel ondoko egungo hiru eraikinak eraistea.
- * Landaren eta Karabelen area mugakidean aurreikusitako lezoiaren azkeneko zatia eraikitzea, egungo auzoaren iparraldeko bideari jarraituz.

Areari zerbitzua emango dion bide-sarea zehazten du. Horretarako, kontuan hartuko dira, batetik, Hernaniko hirigunearen antolamendu orokorraren aurreikuspenak (planeamendu orokorrari atxikitako Mugikortasun Planaren irizpideekin bat datozenak) eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak egindako Urumea ibaiaren ibilgua antolatzeke azterlanean aurreikusitakoak. Hori oinarri hartuta, proposamen hauek egiten dira:

- Karabelgo zubia ordezkatzeko. Zubi berria egungoa baino gorago eraikiko da, Akarregiko azpi-eremuan aurreikusitako biribilgunearekin koordinatuta. Errodadura-bidea 7 metro zabal izango da. Horrez gain, oinezkoentzako bi espaloi eta bidegorria izango ditu. Espaloi horietako bat gutxienez 3 metro zabal izango da, eta bidegorria, 2,2 metro zabal.
- Karabel auzoaren iparraldeko egungo bidea osatzea, proposatutako biribilgune berriarekin lotu arte.

Area honi dagozkion hirigintza-kargak izango dira, testu bateginaren arabera, indarrean dagoen Hirigintza Araudiak zehaztutakoez eta arearen antolamendu xehakaturik gauzatzeko behar direnez gain, arearen mugen barruan izan ala ez, Karabelgo zubia ordezkatzeko lanen kostuaren zati baten finantzazioa, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak hartutako irizpideen arabera. Hauek dira:

- Karabelgo zubiaren ondoko egungo hiru eraikinen eraiste-kostuak eta kalte-ordainak, oso-osorik.
- Karabelgo zubia ordezkatzeko lanen kostuaren zati baten ordainketa, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak eta Hernaniko Udalak sinatutako dagokion hitzarmenean zehaztuko den proportzioaren arabera.

Bosgarrena.- Gauzak honela, 2011ko maiatzaren 10ean Hernaniko Udalak eta Uraren Euskal Agentziak "Urumea ibaiaren arroan, Karabel auzoan, uholdeak saiheste aldera jarduketak egiteko protokoloa" izenpetu zuten. Protokolo horren bidez honako konpromiso hauek hartu zituzten:

a) Uraren Euskal Agentziak (URAK) hartutako konpromisoak:

- Ondoko dokumentu hauen idazketa-lana egitea.
 - Egungo zubia eraisteko egitasmoa.
 - Zubi berria eta Karabelgo lezoi zatia eraikitzeke egitasmoa.
- Aipatutako bi egitasmo horietako obrak esleitzeko prozedura lehenbailehen bideratzea.

- Obra horien exekuzioaren kostu osoaren %75 finantzatzea (lurrak okupatzeari eta dauden eraikinak eraisteari eta kalte ordainak ordaintzeari dagozkionak kanpo).

b) Hernaniko Udalak hartutako konpromisoak:

- Protokoloaren ondorioz bizitegi garapen berriko areari (UM)PK.02. esleitzen zaizkion konpromisoak eta kargak Udalerriko Hirigintza Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren tramitazioan sartzea eta mantentzea.
- (UM)PK.02 area horren jabeek ondoko betebeharrak bete behar dituztela bermatzea:
 - Aipatutako obren ondorioz eraginda dauden Urumea ibaiaren ezker aldeko hiru eraikinak hustu eta eraistea. Hori obren lizitazioaren aurretik egin beharrekoa izango da.
 - Obrak egiteko behar den lurzorua doan eta zamarik gabe lagatzea. Hori ere obren lizitazioaren aurretik egin beharrekoa izango da.
 - Obra horien exekuzioaren kostu osoaren %25en finantzaketa ordaintzea (egitasmoen idazketa-lanari dagokiona barne).
- Doan eta zemetatik libre lagatzea, Uraren agentziak eskatzen duen unean, aipatutako bi egitasmo horiek aztertzen dituzten lanak gauzatzeko aldera beharrezkoak diren (UE)PK.02 areatik kanpoko gainerako lurrak, udal jabetzakoa nahiz jabetza pribatukoak.

Ondotik, protokoloaren gehigarri bat izenpetu zuten bi erakundeok. Horren bidez URAk udalari eman zion egitasmo tekniko horiek prestatzeko ardura, aipatutako finantzaketa irizpideak mantentzearen kalterik gabe, eta egitasmoaren kostua "konturako" gastu gisa hartuta.

Seigarrena.- Zubi berria eraikitzeko egitasmo teknikoa lantzen eta PK.02 areari buruzko planeamendu orokorra garatzen ari zen bitartean (Hirigintza Antolamenduko Plan Berezia eta Urbanizazio Egitasmoa) ikusi da 2008ko azterlan hidraulikoan jasotakoak baino jarduketa gehiago ere egin beharke lirakeela (haiek bakarrik sartu ziren 2011n izenpetutako protokoloan eta aipatzen dira 2011ko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren PK.02 Arau Partikularrean).

Jarduketa hauek guztiak egitea beharrezko jo da. Guztira 4.249.615,25 eurotan ebaluatu dira eta, hitzarmen honen I. Eranskinean xehakaturik datozen aurrekontuen arabera, hauek dira:

- 1.- Karabelgo zubiaren lanak: 3.317.891,13 € (Kontratako Exekuzio Aurrekontua BEZ barne)
- 2.- Egitasmoaren idazketa-lana eta obren zuzendaritza: 69.030,00 € (BEZ barne).
- 3.- Euri uren kolektorea eta euspen-tanga Karabel auzoan: 820.993,97 € (Kontratako Exekuzio Aurrekontua BEZ barne)
- 4.- Egitasmoaren idazketa-lana eta obren zuzendaritza: 41.700,00 € (Kontratako Exekuzio Aurrekontua BEZ barne)

Zazpigarrena.- Jarduketa horiek guztiak egiteko Hernaniko Udalak Uraren Euskal Agentziaren lankidetzara eskatu du.

Zortzigarrena.- Uraren Euskal Agentziak eta Hernaniko Udalak beharrezko jotzen dute bi erakundeen artean lankidetzan eta koordinaturik aritzea egitasmoan jasota dauden eta Karabel inguruko uholde arriskua erruz murrizteko beharrezkoak diren obrak egiteko.

Bederatzigarrena.- Azaldutako horiek guztiak kontuan hartuta, Uraren Euskal Agentziak eta Hernaniko Udalak LANKIDETZA HITZARMEN hau izenpetzen dute, bertan jasota dauden jarduketak egiteko. Hona hemen hitzarmenaren baldintzak:

BALDINTZAK:

Lehena.- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua da *Urumea ibaiaren antolamenduaren azterlan hidraulikoa (bokaletik Hernaniko Alzuetara artekoa)* izenekoan jasota dauden esku-hartzeak, zehazki Hernaniko Karabel auzoan egitekoak direnak egite aldera, Uraren Euskal Agentziaren eta Hernaniko Udalaren arteko lankidetzak konpromisoaren baldintzak arautzea.

Bigarrena.- Gauzatu beharreko obrak.

Egin beharreko obrak, ondoko klausula hauetan ezarritako terminoetan, aipatu dugun azterlan hidraulikoan jasota datorrenak dira, hots: Karabelgo egungo zubia eraistea eta berria eraikitzea, tartean haberik ez duelarik, Karabelgo zubiaren ondoan dauden hiru eraikuntzak eraistea eta auzoa iparraldetik zeharkatzen duen bide bazterrean lezoia eraikitzea.

Hirugarrena.- Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- a) "Karabelgo egungo zubia eraisteko, berria eraikitzeko eta Karabelgo PK.02 area iparraldetik zeharkatzen duen bidearen luzera guztian lezoia egiteko egitasmoa"ren idazketa-lanaren kostu osoa finantzatzea eta horren zenbatekoa, 69.030 € erotan ezarria, Udalari ordaintzea.
- b) Egitasmo hori bideratzea eta behin betiko onartzea.
- c) Egitasmoan jasota datozen obrak 2012. urtean zehar kontratatzea, bakarrik Karabelgo zubi berriaren eraikuntzari, azpiegiturak lekualdatzeari eta oraingo zubia eraisteari dagozkionak.
- d) b atalean aipatutako obrak teknikoki zuzentzea eta ikuskatzea.
- e) Benetako kostu osoa finantzatzea eta ordaintzea, bai a eta b atalean aipatutako obren idazketa-lanak eta exekuzioaren kontratazioaren ondoriozkoa, eta baita hitzarmen honen laugarren baldintzaren f atalean jasota datorren lezoia eraikitzeko obrei dagokiena ere.

Uraren Euskal Agentziak ekarpen gisa konprometituko duen diru kopurua hau da: HIRU MILIOI HIRUREHUN ETA LAUROGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA BAT EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMO (3.386.921,13 €), BEZ barne, honetarako:

- 2012an udalari 69.030 € (BEZ barne) ordaintzeko, egitasmoaren kostuaren ordainketa gisa.
- Zubi berria eraikitzeko eta zaharra eraisteko lanak egiteko 2013-2014 (3.135.737,26 € BEZ barne).
- Udalari lezoia egiteko lanen kostua ordaintzeko (182.153,85 €), 2014an .

Lezoia eraikitzeko lanen kostuaren ordainketa Udalak Uraren Euskal Agentziari obren ziurtapenak helarazi ahala egingo da, entitate horretan aurkezten direnetik 30 eguneko epean, gehienez ere.

- f) Baimena bideratzea, bidezkoak diren baldintzetan eta, udalak espresuki baimena eskatu ondoren, uren inguruko legedian ezarritakoaren arabera, Akarregiko biribilgunearen egitasmoa gauzatzea, Karabelgo zubi berriaren eraikuntzarekin loturik egin beharrekoa baita.

Laugarrena.- Hernaniko Udalaren egitekoak.

Hernaniko Udalak konpromiso hau hartu zuen:

- a) Zubia eraisteko eta zubi berria eta lezoia eraikitzeke egitasmo teknikoa URaren eskura jartzea 2012ko iraila baino lehen.
- b) Egitasmo hori onartzea.
- c) Karabelgo PK.02 arean aurrera doan hirigintza esku-hartzearen baitan Karabelgo zubia eraisteko eta berria eraikitzeke egitasmoa gauzatzeko behar den ibaiaren ezkeraldeko lurzorua URaren eskura jartzea, 2013ko lehen hiruhilabetekoan zehar. Lurrak doan eta zamarik gabe eskuratuko zaizkio.
- d) Karabelgo zubia eraisteko eta berria eraikitzeke egitasmoa gauzatzeko behar den ibaiaren eskuin aldeko lurzorua, LOIRE SAFE SA enpresarena baita, URaren eskura jartzea, merkataritza enpresa horrekin egindako hitzarmen bidez.
- e) PK.02-ren hirigintza exekuzioaren programazioa URAK beharrezko jotzen dituen terminoetan onartuko dela bermatzea, eta baita inguru horretako eraikuntza eta urbanizazio obrak egiten diren bitartean uholde arazoak saihesteko hartu beharreko neurriak hartuta, eta, nolahi ere, jardueren funtzionamendu egokia ziurtatuz (ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa, zerbitzuak, etab.)
- f) Lezoia eraikitzeke lanak egitea (lezoia eraikitzeke lanak eta Arau Subsidiarioen Testu Bateginean aurreikusita dagoen bide berria eraikitzekeak aldi berean gauzatu behar dira) eta, ondorioz, obrak kontratatzeke konpromisoa hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen arloan indarrean dauden xedapenen arabera, 2014ko bigarren seihilekoan. Aipatutako lanak Uraren Euskal Agentziak dagokion egitasmo teknikoa onartzerakoan zehazten duenaren arabera egingo behar dira.

Lezoia egiteke lanetarako aurreikusia dagoen diru kopurua 182.153,85 eurokoa da (Uraren Euskal Agentziak finantzatzeko du), eta bidea eta dagokion urbanizazioa egiteke, berriz, 271.931,16 eurokoa (Hernaniko Udalak finantzatzeko, 2014ko konpromiso kreditu baten bidez).

- g) Udalak PK.02 areari Karabel inguruan uholdeen arazoa konpontze aldera egin beharrekoak direla ziurtatu diren esku-hartze osagarrien exekuzioa inputatuko dizkiola bermatzea. Horien kostua 862.693,97 eurokoa izango dela zehaztu da. Hauexek dira egingo direla lanak: euspen-tanga eraikitzea eta euri uren saneamendu sareak hari egokitzea.
- h) 2014. urtean Akarregiko biribilgune berriaren lanak kontratatzea eta burutzea, zubi berria eraikitzeke lanekin koordinaturik eta, aldezturik, URaren Euskal Agentziari dagokion baimena eskatuta.

Biribilgunea egiteke aurreikusia dagoen diru kopurua 459.976,07 eurokoa da (BEZ barne). Horietatik 164.177,45 euro 1.0100.601.16.432.00.2010 "Akarregi poligonoaren urbanizazioa" partidaren kontura finantzatzeko da eta, gainerakoa, hau da, 295.798,62 euro, 2014. urterako konpromiso kreditu baten bidez.

- i) Doan eta zametatik libre lagatzea, Uraren agentziak eskatzen duen unean, Karabelgo zubia eraisteko eta berria eraikitzeke lanak gauzatze aldera beharrezkoak diren (UE)PK.02 areatik kanpoko gainerako lurak.

Bosgarrena.- Obren kontratazioa, zuzendaritza eta ikuskapena.

- 1.- Uraren Euskal Agentziak, hitzarmen honen hirugarren baldintzaren c letrarekin bat etorritik, bere gain hartuko ditu Karabelgo egungo zubia eraisteko eta haren ordezt berria eraikitzeke lanen kontratazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aplikatu beharreko kontratazio araubidearen arabera.

Hortaz, Uraren Euskal Agentziari dagokio egin beharreko lanen zuzendaritza eta ikuskapen teknikoaz arduratzea, bai eta horiek egiten diren bitartean ematen diren ziurtapenak onartzea ere.

- 2.- Hernaniko Udala, laugarren baldintzaren f) atalarekin bat etorritik, lezoia egiteko obrak kontratatzeaz arduratuko da, sektore publikoaren kontratuari aplikatu beharreko kontratazio araubidearen arabera.

Hortaz, Udalari dagokion egin beharreko lanen zuzendaritza eta ikuskapen teknikoaz arduratzea, bai eta horiek egiten diren bitartean ematen diren ziurtapenak onartzea ere, nahiz eta Uraren Euskal Agentziak edozein unetan behatu eta kontrolatu ahal izango dituen.

Uraren Euskal Agentziak Udalari lezoia eraikitzeke lanen kostuaren ordainketa Udalak Uraren Euskal Agentziari obren ziurtapenak helarazi ahala egingo da, entitate horretan aurkezten direnetik 30 eguneko epean, gehienez ere.

- 3.- Esku-hartzea benetan hasten den unetik, esku-hartzei buruzko edozein kartel, iragarki edo seinaletan adieraziko da lan horietan Uraren Euskal Agentziak eta Hernaniko Udalak parte hartzen dutela.

Seigarrena.- Esku-hartzeen jarraipen batzordea.

- 1.- Hitzarmen honen jarraipena eta kontrola egiteko Aldebiko Batzorde Misto bat eratuko da. Batzorde hori erakunde bakoitzeko bina ordeztariz osatua egongo da.

Hauek dira batzordearen zereginak:

- a) Kasu bakoitzean bete beharrezko izapideen azkartasuna oztopatzen duten eragozpenak ezabatzen laguntzea.
 - b) Hitzarmen honen xede diren esku-hartzeak bete daitezela bermatzeko hartu beharreko neurriak jakinaraztea eta proposatzea, bereziki urteko kuotak doitu behar izanez gero eta hirugarren baldintzan jasotako kasuetan.
 - c) Hitzarmena interpretatzeko eta gauzatzeko orduan arazorik sortzen bada haiek konpontzen saiatzea.
- 2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean batzordea lanen martxa onak eskatzen duen aldiro elkartuko da, bi aldeetako edozeinek proposaturik. Batzordeko lehendakaria eta idazkaria txandaka izendatuko dira. Elkartzeko eta erabakiak hartzeko quoruma guztien adostasuna izango da.

- 3.- Hitzarmen honetan jarraipen batzordeari dagokionez espresuki jasota ez dagoenerako 30/1992 Legearen II. kapituluko II. idazpuruan araututa datorren organo kolegiatuen araubidea aplikatuko da (Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea azaroaren 30ekoa).

Zazpigarrena.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.

- 1.- Hitzarmen honek administrazio izaera du eta, interpretazioari eta garapenari dagokionez, administrazio publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenetan aplikatzen den ordenamendu juridiko-administratiboaren bidez arautuko da.
- 2.- Hitzarmen hau dela eta edo hitzarmenaren exekuzioa dela eta interpretazio arazorik sortzen baldin bada, arazo horiek jarraipen batzordeak konponduko ditu, aurreko baldintzan adierazitakoaren arabera. Eta hala konpontzerik ez baldin badago, 30/1002 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio (Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, azaroaren 30ekoa).
- 3.- Bi aldeetakoren batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak hitzarmena bertan behera utz dadila eskatu ahal izango du. Hitzarmena bertan behera uzten baldin bada, bi aldeen artean zehaztuko dituzte exekuzio prozesuan dauden obrak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak. Horrez gain, hitzarmena bertan behera uztea eragin duen aldeak sortutako kalte-ordain guztiak ordaindu beharko dizkio bai beste aldeari eta baita fede oneko hirugarrenei ere.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren eragina eta iraupena.

- 1.- Hitzarmen honek ez du ekarriko parte-hartzaileek beren eskumenei uko egiterik edo eskumen horiek aldatzerik; hitzarmenaren bidez hartutako konpromisoetatik eratorritako erantzukizuna baino ez dute hartzen beren gain.
- 2.- Hitzarmen honen eragina izenpetzen denetik aurrera hasiko da, eta une horretatik aurrera behartuko ditu parte-hartzaileak. Iraupenari dagokionez, berriz, obrak egite aldera egindako kontratazioaren likidazioa ordaintzen den arte iraungo du.

Hamargarrena.- Hitzarmena iraungitzea.

- 1.- Hitzarmen hau iraungiko da parte-hartzaileek aurreko baldintzetan jasota datozen beren konpromisoak betetzen dituztenean edo bertan behera uzten denean.
- 2.- Bi aldeetakoren batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak konpromiso horiek zorrotz bete daitezela edo hitzarmena bertan behera utz dadila eskatu ahal izango du. Hitzarmena bertan behera uzten baldin bada, bi aldeen artean zehaztuko dituzte exekuzio prozesuan dauden obrak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Eta hitzartutakoarekin ados daudela adierazteko, lankidetzaren hitzarmenaren izenpetzaileek agiri honen bina ale sinatu dituzte, goian adierazitako lekuan eta egunean.

7.- UR HORNIDURAKO AZPIEGITURAK ERAIKITZEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN BEHIN BETIKO ONARPENA. PARTEHARTZAILEAK: HERNANIKO UDALA, AÑARBEO UREN MANKOMUNITATEA, HERNANIKO 10.5 SEKTOREKO (GALARRETA) KONTZERTAZIO BATZORDEA ETA BURUTZALDEKO INDUSTRIALDEA SA. - 2012ko maiatzaren 9an jarri zen jendaurrean ikusgai Galarretako eremuan ur hornidurako azpiegiturak eraikitze lankidetzaren hitzarmena, Hernaniko Udalaren, Añarbeko Uren

Mankomunitatearen, 10.5 sektorearen Kontzertazio Batzordearen eta Buruntzaldeko Industrialdea S.Aren artean izenpetzekoa.

Jendaurrean ikusgai egoteko epea bukatu delarik, inork ez du alegaziorik aurkeztu. Bakarrik zuzenketa eske bat izan da, hamaikagarren baldintzan, Mankomunitateko Batzordeak egina, inolako garrantzirik ez duena. Hauxe:

Hamaikagarrena. - Jurisdikzioa.

Hitzarmen honen interpretazioari edo betetzeari dagokionez auzi-gairik sortzen baldin bada, parte-hartzaileek auzi horiek adiskidetasunez konpontzeko ahalegina egingo dute. Akordio batera iristen ez badira, parte-hartzaileak, beren eskumenei, izanez gero, espresuki uko eginda, administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegi eta auzitegien esku jarriko dira.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko ekainaren 11n emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehenengo.- Galarretako eremuan ur hornidurako azpiegiturak eraikitze lankidetz hitzarmena behin betiko onartzea. Partehartzaileak: Hernaniko udala, Añarbeko Uren Mankomunitatea, Hernaniko 10.5 Sektoreko (Galarreta) Kontzertazio Batzordea eta Buruntzaldeko Industrialdea S.A.

UR HORNIDURAKO AZPIEGITURAK ERAIKITZEKO LANKIDETZA HITZARMENA. PARTEHARTZAILEAK: HERNANIKO UDALA, AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA, HERNANIKO 10.5 SEKTOREKO (GALARRETA) KONTZERTAZIO BATZORDEA ETA BURUNTZALDEKO INDUSTRIALDEA SA.

Hernani, 2012koaren(a)

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Luis Intxauspe Arozamena jauna, adin nagusikoa, NAN zenbakikoa eta hirigintza hitzarmen honen ondorioetarako helbidea Hernaniko Udaletxean duena (Gudarien plaza z.g.).

Bestetik,

Nora Galparsoro Larraza andrea, adin nagusikoa, NAN zenbakikoa eta helbidea Errotaburu pasealekuko 1-6. solairuan duena (20018 Donostia).

Estefania Morcillo Cerdán andrea, adin nagusikoa, NAN zenbakikoa eta helbidea Mikelategi pasealekuko 53 zenbakian duena (20009 Donostia).

Jesús María Eraña Errazti jauna, adin nagusikoa, NAN zenbakikoa eta helbidea Ibaiondo poligonoko 25-2.F-n duena (20120 Hernani)

PARTE HARTU DUTE

Luis Intxauspe Arozamena jaunak Hernaniko udaleko alkate-lehendakaria den aldetik.

Nora Galparsoro Larraza andreak Añarbeko Uren Mankomunitateko lehendakaria den aldetik.

Estefania Morcillo Cerdán andreak Hernaniko 10.5 sektorearen (Galarreta) Kontzertazio Batzordearen lehendakaria den aldetik.

Jesús María Eraña Errazti jaunak Buruntzaldeko Industrialdea SA-ko gerentea den aldetik eta Hernaniko 10.7 sektorearen (Estubegi) jabeen izenean.

Alde guztiek ahalmena aitortzen diote elkarri zuzenbidean bidezkoa den edozein gauzatarako eta honako aurrekari hauek azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

1.- Indarrean dagoen Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Testu Bateginean 10. Eremurako (Galarreta) jasota dauden zehaztapenen garapenak exijitzen du, eremuaren urbanizazioa egokia izan dadin, aldi berean egin daitezela bai bide-azpiegitura orokorrak eta bai edateko uraren hornikuntzarako eta hondakin-uren saneamendurako azpiegiturak. Komeni da, halaber, gainerako azpiegiturek ere tratamendu bateratua izatea (gasa, elektrizitatea, etab.), 10. Eremua (Galarreta) osatzen duten sektoreei eta areari haien urbanizazioak behar dituen zerbitzu sareak bermatzeko.

Zerbitzu azpiegitura horiek orokorrak dira 10. Eremua (Galarreta) osatzen duten sektore guztietarako eta arearako eta, hortaz, hirigintza eremu horren aprobetxamendu guztien titularrei dagokie haien finantzaketaren eta eraikuntzaren erantzukizuna.

Bestalde, zera gertatzen da: aipatutako azpiegitura horien exekuzioak dakarren kostu osoa ordaindu behar duten lau sektoreetatik eta areatik, 10.5 eta 10.7 sektoreak dira kudeaketan aurreratuenak daudenak (kuoten guztizkoaren %71,424 suposatzen dute). Hori dela eta, haien titularrek adostu dute, Hernaniko Udalarekin bat etorritik, beraiek hartzea azpiegitura egitasmo guztiak sustatzeko prozesuen buruzagitza. Hala ere, 10. Eremuan (Galarreta) dauden hirigintza aprobetxamenduen gainerako titularrekin egindako bileretan haien partaidetza ere eskatu dute, gutxienez guztientzakoak diren azpiegitura hauen exekuzio egitasmoak finantzatzeko.

2.- Hernaniko Udalak eta 10.5 eta 10.7 sektoreen ordezkariak egoki jo dute Añarbeko Uren Mankomunitatea izatea 10. Eremuko (Galarreta) edateko uraren hornidura orokorrerako egin beharreko plangintzaz, lurraren kudeaketaz, exekuzioaz eta hura zerbitzuan jartzeaz arduratuko dena.

Añarbeko Uren Mankomunitateak, bestalde, uraren goi-hornidurako I eta III adarren arteko lotura-hoditeria egin nahi du, mankomunitatea osatzen duten udalerriei beren hornidura sistemaren bermea areagotzeko, sarearen amarauna pixkanaka areagotuz. Hoditeria horretan, funtzionamendu itzulgarria izan dezan, Edateko Uraren Ponpaketa Gune bat jarri beharko da 10. Eremuko (Galarreta) 10.7 sektoreko partzela batean.

Horrela, elkarlotura-hoditeria hori eta 10. Eremuari (Galarreta) edateko ura hornitzeko beharrezkoa den hornidura-azpiegitura elkarren ondoan egongo direnez, bi jarduketa horien arteko koordinazioa ahalik eta estuena izan behar du.

Horregatik guztiarengatik, Añarbeko Uren Mankomunitateak adierazi du prest dagoela bi azpiegitura horien eraikuntza aldi berean egiteko, lankidetzaz hitzarmen baten baitan, hitzarmen horretan hauek guztiak finkatuko liratekeelarik: obren finantzaketarako prozedurak eta proportzioak, parte-hartzaile bakoitzari administrazio edo kudeaketa arloan emango zaion zeregina, exekuzio epeak, Edateko Uraren Ponpaketa Gunea eraikitze aldera beharko den partzela eskuratzeko bidea eta parte-hartzen duen eragile bakoitzak bere gain hartuko dituen betebeharrak etorkizunera begira ziurtatuak geratzeko bermeak.

3.- Parte-hartzaileek gaur arte egindako elkarrizketen ondorioz akordio-oinarri hauek lortu dira:

3.1 Euri uren eta ur beltzen saneamenduari dagokionez, 2011ko uztailaren 26an Añarbeko Uren Mankomunitatearen kudeaketa sozietate publikoa den Añarbeko Urak SAk ziurtagiri bat egin zuen, Hernaniko 10. Eremuko (Galarreta) 10.5 Sektorearen Kontzertazio Batzordeak eskaturik, eta ziurtagiriaren bidez adierazi ados zegoela Hernaniko 10.5 Sektorearen (Galarreta) Urbanizazio Egitasmoaren II fasean saneamenduarentzat planteatutako irtenbidearekin, hots, ur beltzen kolektorea (300 mm-ko diametrokoa) Usurbil/Lasarte-Oria/Hernani kolektore nagusiaren Antziolako adarrari edo Oria beheko interzeptagailuari lotzearekin; eta kolektore bat jartzearekin (1.200 mm-ko diametrokoa) euri urak erreka-bururaino bideratzeko.

3.2 Edateko uraren hornikuntzari dagokionez, baieztatu da Oriaventa Edateko Ur Banaketarako Biltegiak baduela ahalmenik Galarretan egitekoa den jarduketan aurreikusitako eskari berriak asetzeko, bai bolumenari eta baita emariari eta presioari dagokionez ere, eta egiaztatu da egokia dela Galarretaraino iritsiko den banaketarako hoditeria berri baten buru gisa (300 mm-ko diametrokoa).

3.3 Era berean, egin beharreko hoditeria-lan guztiak obra zibil bateratuan egitea komeni dela ikusi da, lur eta zanga berak erabiliz, alegia, bai 10. Eremuari (Galarreta) hornidura egiteko aipatutako banaketa-hoditeria eta baita Añarbeko Uren Mankomunitateko I eta III adarren arteko lotura-hoditeria ere (400 mm-ko diametrokoa).

3.4 Akordio-oinarri hauetatik abiatuz, Añarbeko Uren Mankomunitateak kudeaketarako bere sozietate publiko Añarbeko Urak SAren bidez honako hau egiteko konpromisoa hartu du: Galarretan egin beharreko azpiegitura orokorren egitasmoa prestatzeko enkargua, dagoeneko Sestra Ingeniería y Arquitectura SL enpresari eskatua, eta martxan, bere kontura osatuko duela, ur hornidurarako azpiegituren atalean uraren goi-hornidurako I eta III adarren arteko lotura-hoditeria eta haren Edateko Uraren Ponpaketa Gunea egiteko egitasmoa sartzeko asmoz, hoditeria hori hornitzearen eta jartzearen kostua zehatz-mehatz zenbatekoa izango den jakiteko aukera emango duena, Galarretan egitekoa den jarduketaren gainerako obra zibil eta hoditeriatik bananduta.

4.- Gaiaren azterketa partekatu horretatik abiatuz, hitzarmen honetan parte hartzen duten aldeak akordio batera iritsi dira beren gain hartzen dituzten konpromisoak baldintza batzuen arabera arautzeko. Hona hemen:

BALDINTZAK

Lehena.- Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua da izenpetzen duten aldean arteko lankidetzaren baldintzak eta nondik norakoak ezartzea, aldi berean eta estu-estu koordinaturik egin daitezkeen edateko uraren

hornidurarako azpiegitura hidraulikoak, bai Hernaniko Arau Subsidiarioetako 10. hirigintza eremuan (Galarreta) ezartzen diren erabilera eta jardueri ura hornitzekoak eta bai Añarbeko Uren Mankomunitatearen titulartasunekoak den uraren goi-hornidurako I eta III adarren arteko loturarakoak, sarearen amarauna pixkanaka areagotuz hornidura sistemaren bermea handi dadin.

Bigarrena.- Añarbeko Uren Mankomunitatearen kudeaketa konpromisoak.

Añarbeko Uren Mankomunitateak (aurrerantzean Mankomunitatea) Añarbeko Urak SA (aurrerantzean AGASA) kudeaketarako bere sozietate publikoaren bidez honako ekintza hauek gauzatzeko egin beharreko atze-aurre guztiak egiteko konpromisoa hartzen du:

- a) 10. Eremuaren (Galarreta) ur hornidurako hoditeria orokorraren eta Mankomunitateko I eta III adarren arteko lotura-hoditeriaren egitasmo bateratua onartuko du, proiektatutako irtenbideak egokiak direla egiaztatu beharko duelarik.
- b) Obrak egiteko behar den lurzorua kudeaketa egingo du, kudeaketa horretan Mankomunitateko batzordeak dagokion besterentze-espeditentzia onartzea sartzen dela. Horren harira, eta besterentze espeditentziari formalki hasiera emate aldera, Mankomunitateko batzordeak ahal bezain laster onartuko du hoditeriaren "Trazaduraren Egitasmoa" (Sestra Ingeniería y Arquitectura SL enpresak idatzia), eta besterentze espeditentzia horren izapideak egingo ditu, eraginda gertatuko diren lurren jabeekin akordioetara iristeko aukera ere badagoelarik.
- c) Bi hoditerietarako obra bateratuaren lizitazioa egingo du, enpresa publikoa den aldetik aplikatu beharreko prozeduren arabera.
- d) Obren zuzendaritza fakultatiboa eta harrera egingo du eta obrak zerbitzuan jarriko ditu.

Hirugarrena.- Parte-hartzaileen finantza-konpromisoak

Hornidurarako azpiegitura berrien finantzaketari dagokionez:

- a) Mankomunitateak konpromisoa hartzen du, AGASAREN bidez, bere gain hartzeko uraren goi-hornidurako bere sarearen I eta III adarren arteko lotura-hodia hornitzeko eta jartzeko kostua, hodi horien arteko komunikaziorako beharrezkoak diren osagarri eta pieza berezi guztiak barne. Era berean, egiteko den Edateko Uraren Ponpaketa Gunearekiko aurrekonexioak eta ponpaketa-gune hori guztia bere kontura finantzatzeko ditu.
- b) Galarretako 10.5 eta 10.7 Sektoreen sustatzaileek, hau da, 10.5 Sektorearen Kontzertazio Batzordea eta Buruntzaldeko Industrialdea SA, 10.7 Sektorekoen izenean, eremurako hornidura orokorreari dagokionez egin beharreko gainerako jarduketak guztiak finantzatzeko konpromisoa hartzen dute, hots, behar den lurzorua eskuratzeko kalte-ordainak eta obra zibilaren exekuzioa finantzatzeko (erispenak eta lur-egokitzapenak, zanga, entibamenduak eta bete-lanak, Galarretari hornikuntza egiteko hoditeria, kaudalimetroa, pieza bereziak eta osagarriak eta eragindako zerbitzuen berrezarpenak).
- c) Bestalde, ur hornidurarako hodiak instalatzerakoan jartzea erabakitzen den telekomunikazio sareen finantzaketa haren sustatzaile eta eraiki ondoren titular izango denaren kontura izango da (kablea, fibra optikoa edo dena delakoa).

Laugarrena.- Hitzarmen honen gai diren azpiegituren titulartasuna

Parte-hartzaileek honako hau adostu dute sareen titulartasunari buruz hoditeria berria zerbitzuan sartzen denerako:

a) Jardueren, pabiloien edo partzelen titular bakoitzaren hartunearen eta poligonoaren hoditeria orokorra Antziolako adarrarekiko loturaren artean dagoen ur beltzen saneamendu sarea udalaren jabetzako bigarren mailako saneamendu sarean edo behe-horniduran sartuko da (urbanizatzaileek Hernaniko Udalari entregatu ostean) eta, aurrerantzean, udalaren ardura izango da hura ustiatzea eta mantentzea.

Ur hornidurarako hoditeria berriari dagokionez:

b) 10. Eremurako (Galarreta) ur hornidura-hoditeria udalaren jabetzako bigarren mailako saneamendu sarean edo behe-horniduran sartuko da (urbanizatzaileek Hernaniko Udalari entregatu ostean) eta, aurrerantzean, udalaren ardura izango da hura ustiatzea eta mantentzea; AGASAK Udalari fakturatuko lizkioke banaketa hodia berriaren bidez zerbitzatutako goi-hornidurako kontsumoak, Oriaventako Edateko Ur Banaketarako Biltegiaren irteeran neurtuak, sistemaren gainerako biltegieta bezala.

c) Mankomunitatearen goi-hornidura sarearen I eta III adarren arteko lotura-hoditeria horretan sartuko da, eta AGASARI dagokio hura ustiatzea eta mantentzea.

Ur hornidurarako hodiak instalatzerakoan jarri beharreko telekomunikazio-hodi, kable edo fibra optikoaren titularrak haien erabiltzaileak izango dira (AGASA, Galarretako urbanizatzaileak, etab.).

Bosgarrena.- Mankomunitatearen jarduketa osagarria AGASAREN BIDEZ

Aurrekoa alde batera utzita, AGASAK Edateko Uraren Ponpaketa Gune bat eraikiko du bere kontura (Galarretako Edateko Uraren Ponpaketa Gunea), adarren arteko lotura-hoditeria berriaren beheko muturrean, hau da, lotura-hoditeria hori III adarrarekin lotzen den puntuaren gainean.

Edateko Uraren Ponpaketa Gunea eraikitzeko behar den partzelak, 350 m² inguruko azalera izan beharko duena eta, printzipioz, 10.7 Sektoreren ipar-ekialdeko muturrean kokatua egongo dena, 1 zenbakiko bere partzelaren ondoan, jabari eta erabilera publikoari lagako zaio, doan, eta Mankomunitatearen esku utziko da, hori ere doan.

Hernaniko Udalak, bestalde, konpromiso hau hartzen du: partzela hori ur hornidurako zerbitzu publikorako erabilera duela jasoko dela aipatutako 10.7 Sektoreren planeamendurako tresnak onartzerakoan -Zatiko Plana-, Edateko Uraren Ponpaketa Gunea horrelako instalazioek izaten dituzten ezaugarriak dituela eraikitzea ahalbidetzen delarik (hor sartzen da, halaber, ponpaketa gunera bide-sare publikoan barrena ibilgailuz joan ahal izateko bidea).

Seigarrena.- Hitzarmenaren garrantzi ekonomikoa

Hona hemen aurreikusita dauden jarduketan norainoko ekonomikoaren kopuruak, gutxi gorabehera, hitzarmen honen gai diren hornidura-azpiegituren exekuzio egitasmoan azkenean zehaztuko diren zenbatekoak zehazteke eta obrak egiteko behar diren lurrak eskuratzeko ordaindu beharko diren kalte-ordainen azken zenbatekoa zehazteke:

Construcción de las conducciones de abastecimiento de agua

Concepto	Conducciones de:	Total
-----------------	-------------------------	--------------

	abastecimiento al Ámbito 10 Galarreta	interconexión de Ramales I y III	
Conducción abastecimiento Galarreta	364.034,19	---	521.313,46
Conducción interconexión Ramales I y III	---	157.279,27	
Nuevo equipamiento en el DDAP Oriaventa	69.830,19	30.169,81	100.000,00
Redes de telecomunicación	31.396,51	12.001,25	43.397,76
Seguridad y salud laborales	16.000,00	---	16.000,00
Gestión de residuos	10.000,00	---	10.000,00
Total presupuesto de ejecución material:	491.260,89	199.450,33	690.711,22
Gastos generales (13 %)	63.863,92	25.928,54	89.792,46
Beneficio industrial (6 %)	29.475,65	11.967,02	41.442,67
Total presupuesto de ejecución por contrata:	584.600,46	237.345,89	821.946,35
IVA (18 %):	105.228,08	42.722,26	147.950,34
Total presupuesto de licitación:	689.828,54	280.068,15	969.896,69
(% de participación)	71,12 %	28,88 %	100,00 %

Hitzarmenak diru aldetik suposatzen duen guztizko kopuruari dagokionez, hau izango da obrak egiteko behar den lurzorua lortzeko kalte-ordainen zenbatekoa eta obren kostua:

Alcance económico total del convenio (€, IVA no incluido)			
Concepto	A financiar por Sectores 10.5 y 10.7	A financiar por AGASA	Total
Indemnizaciones por el suelo	75.000,00	---	75.000,00
Construcción de las conducciones	584.600,46	237.345,89	821.946,35
Total:	659.600,46	237.345,89	896.946,35

Beraz, hitzarmenaren gai den ur hornidurarako obren kopurutik, Añarbeko Mankomunitateak AGASAREN bitartez, 237.345,89 € (BEZ kanpo) finantzatzeko konpromisoa hartzen du.

Bestalde, 10. Eremuko (Galarreta) 10.5 eta 10.7 Sektoreetako titularrek aipatutako obra horien kopurutik 584.600,46 € (BEZ kanpo) eta lurzoruen jabeek egin beharreko kalte-ordainen kopurutik 75.000 € finantzatzeko konpromisoa hartzen dute; hau da, guztira 659.600,46 € (BEZ kanpo) ordaintzekoa, beraien artean adosten dituzten konpromiso eta akordioen arabera erabakitzen dituzten proportzioetan banatuta.

Zazpigarrena.- Jarduketa ordaintzeko eta likidatzeko moduak

Lurzorua eskuratzeagatik jabeei kalte-ordainak ordainduko dizkiena AGASA izango denez, kalte-ordain horiek eman ondoren 10.5 eta 10.7 sektoreetako titularrei fakturatuko dizkie kopuruak, beraiek erabakitzen dituzten proportzioen arabera, legez dagokion BEZ sartuta. Titular horiek bakoitzari dagozkion fakturak gehienez ere 60 egunetan ordainduko dituzte, fakturaren datatik aurrera kontatuta. Lurzoruen jabeei azkenean ordaindu beharko zaizkien kalte-ordainetan hitzarmen honetan jasotako 75.000 €-ko aurreikuspenarekiko aurrezkirik –edo gainkosturik- gertatuz gero, gertatutako aldea AGASAk 10.5 eta 10.7ko titularrei egingo dizkien fakturretan murriztu –edo gehitu- egingo da, kalte-ordainen kopuru zehatzak ordain daitezzen, ez gehiago ez gutxiago.

Era berean, obren lehiaketa, esleipena, zuzendaritza eta likidazioa egingo dituen AGASA izango denez, obren esleipendun gertatzen den enpresari hileroko obren ziurtapenak ordaintzeaz eta lanen azken likidazioa ordaintzeaz ere arduratuko da.

Obren exekuzio epea sei hilabetekoa denez, 10.5 eta 10.7 Sektoreetako titular edo ordezkariak, hots, 10.5 Sektoreko Kontzertazio Batzordea eta Buruntzaldeko Industrialdea SAK, obrak finantzatzeko batera ordaintzea dagokien kopuruaren seirena ordainduko diote hileroko AGASARI –bi entitate horien artean bakoitzarentzat erabaki dituzten proportzioen arabera-, eta IVA ere sartzen dela, hau da, 584.600,46 €-ren seirena gehi kopuru horri dagokion BEZ. Titular horiek bakoitzari dagozkion fakturak 60 egunetan ordainduko dituzte, gehienez ere, fakturen datatik aurrera kontatuta.

AGASAk beraz, hileroko 97.433,41 €-ko kopurua gehi horri dagokion BEZ fakturatuko die aipatutako bi entitate titularrei, haiek beraien artean zehazten dituzten proportzioetan. Faktura horietako lehenengoa bere Administrazio Kontseiluak lanen esleipena egiten duen hilabetearen azken egunean fakturatuko du AGASAk, eta hurrengo lauak hurrengo hilabete jarraituetako azken egunean. Seigarren eta azken fakturak hitzarmenaren likidazio izaera izango du eta haren zenbatekoa aurrekoen berdina izango da baldin eta obren kostu osoa hitzarmen honetan ezarritako gutzitzaarekin bat baldin badator: 821.946,35 € BEZ kanpo.

Hala ez bada, hots, gainkosturik egon bada (edo aurrezkirik, lizitazioan egindako beharpenengatik, obra txikiagoengatik, etab.) eta, ondorioz, obraren azken kostu osoa 821.946,35 €-ko, BEZ kanpo, kopuruaren gainetik badago (edo kopuru horretara iristen ez bada), 10.5 eta 10.7 Sektoreetako titularren ekarpena hala berean igo edo jaitsiko da. Hau da, obren kostu handiagoaren (edo aurrezkiaren) %71,12 ordainduko dute, eta gainerako %28,88 AGASAk jarriko du (edo ekarpen txikiagoa egin behar izatea ekarriko du).

Hortaz, azken fakturaren kopurua obren azken kostuari egokituko zaio, eta 10.5 eta 10.7 Sektoreetako titularrei dagokion kopurua itzuliko zaie, obren azken kostua aurreko bost fakturen bidez ordaindutakoa baino txikiagoa izanez gero.

Hori alde batera, Añarbeko Mankomunitateak, bere kontura, eta AGASaren bitartez, Galarretako Edateko Uraren Ponpaketa Gunea egin beharko du. Horren exekuzio materialeko kostu gutxi gorabeherakoa 400 €-koa da. Kopuru hori ez dago sartua hitzarmenean konprometitutako kopuruetan, Mankomunitateak bere aldetik egin beharreko jarduketa delako. Hitzarmenean honi dagokionez hartutako konpromisoak ponpaketa gunea bosgarren baldintzan azaldutakoei jarraituz eraikitzeke behar diren lurren lagapenera mugatzen dira.

Zortzigarrena.- Mankomunitateak AGASaren bitartez eman beharreko dokumentazioa

10. Eremua (Galarreta) osatzen duten sektoreek eta areak eremu hori behar bezala urbanizatua egoteko behar diren zerbitzu sareak eraikitzeke egitasmo eta obrak ordaintzeko obligazioa daukate.

Hala, 10.5 eta 10.7 Sektoreek hitzarmen honetan mintzagai ditugun ur hornidurarako jarduketan finantzaketa aurreratua beren gain hartu dutenez, haien titularrek orain aurreratutako finantzaketatik dagozkien kargak inputatu beharko diete, dagozkion unean, 10. Eremuaren (Galarreta) gainerako sektoreei (10.6 eta 10-8) eta 10.9 areari.

Karga horien inputaziorik zorrotzena egite aldera, AGASAk konpromiso hau hartzen du: bai Hernaniko Udalari eta bai 10.5 eta 10.7 Sektoreei hitzarmen honen gai diren jarduketan kostuei buruzko informazio guztia ematekoa.

Bederatzigarrena.- Hernaniko Udalak Mankomunitatearen azpiegituraren afekzioari dagokionez hartuko dituen konpromisoak

10. Eremuaren (Galarreta) urbanizazio lanek Mankomunitatearen hornidurarako III adarrean izan ditzaketan afekzioei dagokienez, 10.7 Sektorearen Zatiko Plana aldatuko da, hoditeriaren gaur egungo trazadura eta jabari publikoko lurreko zortasun-zerrenda mantentzeko, eta aipatutako sektorearen Urbanizazio Egitasmoan Mankomunitateak, AGASAre bitartez, hala badagokio, hodia babeste aldera definitzen duen irtenbidea sartuko da.

10.8 Sektoreari dagokionez, atzeratuago baitago behin betiko antolamendurako erabakietan, Zatiko Planak gaur egungo hoditeriaren trazadura berari eta hark jabari publikoko lurzoruan duen zortasun-zerrendari eutsiko dio, eta Urbanizazio Egitasmoan Mankomunitateak, AGASAre bitartez, hala badagokio, hodia babeste aldera definitzen duen irtenbidea sartuko da. Hoditeriaren gaur egungo trazadurari eustea ezinezko baldin bada, Hernaniko Udalak Mankomunitatearekin hoditeriaren aldaketarako irtenbide egokia adosteko konpromisoa hartzen du, zatiko planaren zehaztapen lotesle eta sustatzaileentzako urbanizazio zama saihestezin gisa sartuta.

Hamargarrena.- Jarraipen batzordea

Parte-hartzaileek Jarraipen Batzordea eratzeko betebeharra ezartzen diote elkarri. Jarraipen Batzordearen egitekoa hau izango da: hitzarmena sinatzen duten lau entitateen ordezkariak osatutako jardunaren jarraipena egitea, hitzarmenaren gai den operazio osoa gainbegiratzea, gardentasuna bermatzea, bai informazioarena, behar bezala egiaztatua eta dokumentatua, bai hitzarmena garatze aldera egin beharreko izapide eta jarduketena eta, bereziki, operazioaren ekonomia-araubidearekin eta alde bakoitzak egin beharreko bere ekarpenaren ordainketarekin lotutako guztiarena.

Batzordea honela osatua egongo da: alde bakoitzeko ordezkari bana eta horietako bakoitzarentzako ordezkari bana, eskumena daukan organoak izendatuak, eta batzordeburua, Hernaniko alkatea edo hark bere ordezkari izendatzen duena izango dena.

Batzordearen bilerak Hernaniko Udaletxean egingo dira, eta bilera horien maiztasuna, araubidea, deialdia etab. batzordeburuak erabakiko ditu.

Hamaikagarrena.- Jurisdikzioa.

Hitzarmen honen interpretazioari edo betetzeari dagokionez auzi-gairik sortzen baldin bada, parte-hartzaileek auzi horiek adiskidetasunez konpontzeko ahalegina egingo dute. Akordio batera iristen ez badira, parte-hartzaileak, beren eskumenei, izanez gero, espresuki uko eginda, administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegi eta auzitegien esku jarriko dira.

Hamabigarrena.- Hitzarmenaren eragina eta iraupena.

Hitzarmen honen eragina izenpetzen denetik aurrera hasiko da eta une horretatik aurrera behartuko ditu parte-hartzaileak. Iraupenari dagokionez, berriz, Mankomunitateak AGASAre bitartez

hitzarmenaren gai diren ur hornidurarako azpiegitura berriak zerbitzuan jartzen dituen arte, Galarretako Edateko Uraren Ponpaketa Gunea eraikitzeko beharko den lursailaren lagapena burutu arte eta Hernaniko Udalak 10. Eremuko (Galarreta) sektoreetako eta areako bigarren mailako planeamendu edo garapen tresnak behin betiko onartu arte (zeinetan barrena igarotzen baita Añarbeko Uren Mankomunitatearen goi-horniduraren III adarra) iraungo du.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea udalaren izenean aipatutako hitzarmen hori formalizatzeko eta ebazpen hau gauzatzeko beharrezko diren dokumentu guztiak sina ditzan.

8.- EPELA BAILARAKO 29 ZENBAKIKO XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, ELECTROQUIMICA DE HERNANI, S.A.K AURKEZTUA. - Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko apirilaren 27an egindako bileran, erabaki zuen Epela bailarako 29ri buruzko xehetasun-azterlanari hasierako onarpena ematea eta espedientea jendaurrean jartzea 20 egunez.

Espedientea jendaurrean ikusgai egon den bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko ekainaren 11n emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Electroquimica de Hernani, S.A.k aurkeztutako Xehetasun Azterlanari, Epela bailara 29-ri buruzkoa, behin betiko onarpena ematea.
- 2.- Behin betiko onartzeko erabaki hau GAOn argitaratzea.

9.- SANTA BARBARAKO HARROBIKO HUSTIAKETARAKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN HASIERA DATA ALDATZEKO ESKAERA CAMPEZO CONSTRUCCIÓN SAU-K ESKATUTA. - 2009ko urtarrilaren 21ean Udal honek eta CAMPEZO CONSTRUCCIÓN SAUk Santa Barbarako harrobiaren hutsunea hondeaketetatik datozen lurren hondakindegira gisa ustiatzeko eta aprobetxatzeko administrazio emakidaren kontratua izenpetu zuten. Kontratuaren iraupena 6 urtekoa da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Emakidadunak eskatu du administrazio emakidaren hasiera data alda dadila, 2010eko uztailaren 27ra atzeratuz, egun horretan lortu baitzuen Santa Barbarako parke naturalarekin lotutako betelan jarduerarako udal lizentzia. Egin duen eskaera arrazoitzeko zera adierazi du, alegia, bererari lepora ezin zaizkion arrazoiengatik udalaz gairik erakundeetatik lortu beharreko baimenak ez zituela 2010eko ekainera arte lortu eta jardura lizentzia ere hilabete beranduago lortu zuela eta, hortaz, ordura arte ezin izan ziola ekin betelan jardura normalari.

Aztertu da Udal ingurumen teknikari Urrutibeaskoa andreak egindako txostena.

Aztertu da kontratazio eta ondare teknikariak egindako txostena

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko ekainaren 11n emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- Santa Barbarako harrobi zaharraren hutsunea hondeaketetatik datozen lurren hondakindegira gisa ustiatzeko eta aprobetxatzeko administrazio emakidaren hasiera data aldatzea eta 2010eko uztailaren 27an finkatzea.

10.- HERNANIKO SAGASTIYAN DAGOEN ITURMEDI PARKEKO (1B FASEA) HIRIGINTZA-OBRAK ONARTZEKO ESKAERA EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILAK AURKEZTUA. - Aztertu da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako eskaera Sagastiako eremuan dagoen Iturmendi parkeko hirigintza-obrak (1.B fasea) udalak jasotzeko.

Aztertu dira udal aparejadoreak eta Ur eta Argi zerbitzuburuak egindako txostenak.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko ekainaren 18an emandako irizpena.

Horiek horreka, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Sagastiako eremuan dagoen Iturmendi parkeko hirigintza-obrak (1.B fasea) udalak jasotzeko.
- 2.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordezkari akordio hau formalizatzeko beharrezko diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

11.- KIROLDEGIKO TABERNA HUSTIATZEKO KONTRATUAREN LUZAPENA ETA ALDAKETA. - 2008ko maiatzaren 1ean sinatu zen Udal Kiroldegiko Taberna, Kafetegia eta Jatetxe zerbitzua prestatzeko kontratua Hernaniko Udal Kirol Patronatua eta Marijo Oscoz Mutuberriaren artean, lau urteko iraupena du eta urtero luzatu daiteke, gehienez beste lau urtez, alderdiek adostuta.

2012ko martxoaren bukaeran Oscoz andreak, luzapena adostu aurretik, krisi ekonomikoa dela eta gastuak ordaindu ezin dituela arrazoituz, honakoa eskatzen du:

- Udalak argi indar faktura bere gain hartzea.

- Ordutegian malgutasuna: eskolako opor garaian eta goizez bakarrik klaseak daudenean arratsaldetan ixtea edo kirol eskola ez dagoenean eta gertaera (judoa, igeriketa edo soinketa erritmikoa) berezia ez dagoenean, larunbatetan ez irekitzea.

Kiroldegiko Zuzendariak, Saez jnak, aldaketa horien aldeko txostena egin du.

Kontuhartzailak, Garcia jnak, txostena egin du, luzapena erregularitzatu beharra azpimarratuz, urteko kanona eguneratu beharko dela adieraziz (269,22€/hileko).

Kontratazio Teknikariak, Baraibar and.k, txostena egin du.

Aztertu da Kirol Batzordeak 2012ko ekainaren 19an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Udal Kiroldegiko Taberna, Kafetegia eta Jatetxe zerbitzua prestatzeko kontratua urtebetez luzatzea, 2012ko maiatzak 1eko ondorioekin, honako aldaketekin:
- Udalak argi indar fakturaren gastua bere gain hartuko du, gehienez urtean 4.000 €-ko kopurura arte. Gastua partida honen kontura izango da.
- Zerbitzua prestatu beharreko ordutegia malgua izango da, zentzu honetan: eskolako opor garaian eta goizez bakarrik klaseak daudenean arratsaldetan ez irekitzea edo kirol eskola ez dagoenean eta gertaera (judoa, igeriketa edo soinketa erritmikoa) berezirik ez dagoenean, larunbatetan ez irekitzea posible izango du.

- 2. Marijo Oscoz Mutuberriak hilabetero ordaindu beharreko Kanona eguneratzea 2012ko maiatzak 1etik 2013ko apirilak 30 arteko eperako:269,22 €.
- 3.- Dagokion kontratua sinatzeko Alkatea edo legez ordezkatzan dion pertsona izendatzea

12.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARERANTZUTEKO UDALERRI MAILAKO PROTOKOLOA. - Aztertu da Politika Sozialeko batzordeak 2012ko ekainaren 14an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez: Emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko udalerrri mailako protokoloa onartzea.



azala.doc

13.- ESKAERAK ETA GALDERAK. – Ez dira aurkezten,

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:15 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.